

Auziaren luzean

Ezin zitzairen mendeku ase kiratsa kendu epaiari buruz emandako iritziei. Kartsia helburu zutelarik, programazio bereziak antolatut zituzten Espainiako telebista kate guztietan. Zaratarekin zauriak eta gale-rak gainditzeko ahalegin antzua baizik ez zitekeen ikus, jartzen genuen katearen arabera, haren kordako alderdiaren interes elektoralak baldintzatu mezuek betetzen zutelarik pantaila. Salbuespenik gabeko ohitura duguna, bestalde.

Justiziaren erabakiak izan geni-

tuen atzo pantailako izar. Tartean agintari euskaldunak eta politika espainiarra egonda, arratsera arte itxaron beharra zegoen toga edota sententzia edota akusazio izango ez zenarekin topo egiteko. Noski bazela bestelako saioren errepikapenik aukeran, baita telesail amerikarrik ere arreta gune balizko bezala, baina, oro har, Madrilo atentatuek bereganatu zituzten orduak. Bigarren maila batean, martxoak hamaika zitueneko gertakarien egiletza egozten bizkorre- gi ausartu zenaren eta EAElko le-



ekOGRAFIAK

ASIER SARASOLA

hendakaria denaren auzipetzea, legez kanpokatut jotako erakunde ordezkariekin biltzeagatik. Ekintza hiltzailearen ostean hautetskunde espainiarretan garaile atera zen alderdiko Euskadirako ordezkarria aulkian eseriko da harekin batera. Edonola, ezin epelagoak izan dira bataren nola bestea- ren erreakzioak delako afera horretan. Ardurapeko dituzten karguetarako bederen. *Firin-Far-ran* programako mahai itxurabe- rrituan nabarmentzen zuen La- kastak; izan liteke hurrengo hau- teskunde autonomikoetan lehendakariagai esanguratsuene- tatik hiru baliogabetzea Justizi- arn jardunak.

PPk sostengatu hipotesiaren

ukazioa azpimarratzen zuen epaiak asteazkeneko albiste nagusi- an. Epel aritu direnak kasu hone- tan, justiziagileak genituzke, zue- na litzatekeelako orduko adieraz- penen desmasiak, eta gerora konspirazioaren teoria bezala eza- gutu dugunaren erantzuleak lego- kiekeen tokian jartzeko. Baita ete- kin politikoak erdiesteko jokabide hori salatu dutenak ere. Arrazoi genuke pentsatuko bagenu aski ai- tzakia izan dela lehenago ere neu- rriak hartze aldera baina ez direla hasiko euren patrikak zulatzen fis- kal eta epaileak. Hala ere, ez da hau abokatuen telesail bateko gi- doilariaren zutabea, eta borroero moztorriak arnasa gabe uzteraino estu gaitzake.

«Tokiko telebista gehiago balira, euskarak eragina irabaziko luke»

JEAN CLAUDE IRIART Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria

Ipar Euskal Herrian hamar ikus-entzuletik batek euskal hedabideak segitzen ditu erregulariki, eta Irulegiko irratia da Nafarroa Beherean gehien entzuten dena

AITOR RENTERIA
Baiona

Tokiko eskaintzak audientzia handia duela erakutsi du Euska- raren Erakunde Publikoak Ipar Euskal Herrian burutu berria duen inkestak. Jean Claude Iriart zuzendariak emaitzak sakon azal- du ditu.

Zein izan ziren hedabideei buruzko inkesta egiteko arrazoiak?

Helburu zehatzak genituen inke- sta egiteko orduan. Lehenik, jende- en ohiturak ezagutzea, jakitea zer ikusten duten eta zer entzuten du- ten, noiz, zeinek. Proiektuak pre- statzeko beharrezkoa da diagnosti- tik abiartzea. Bigarrenik, neurtu nahi genuen tokiko eskaintzaren eragina. Ez soilik euskarazkoena, tokiko ikus-entzunezko erdaldu- nen eragina ere bai.

Ezusteak atzeman duzue inkestaren emaitzetan?

Behatzaileen aldetik, Frantzia- n bezalako emaitzak lortzen dira. Abantzu hiru orenez ikusten da te- lebista, eta bost minututik bat da- gokio tokiko telebistari. Irratiak bi oren eta 23 minutuz entzuten dira, baina 43 minutuz entzuten dira to- kiko irratia, eskaintza zabalagoa izan arren. Irratietan fideltasun handiagoa dago tokiko eskaintza- rekin. FR3 katea Antenne2 edo TF1n pare agertzen bada ere, irau-



BERRIA

penean da berezia. Irratiari eskai- ni denbora txikiagoa den arren, 43 minutuz aditzen dute tokiko es- kaintza, telebista baino hamar mi- nutu gehiago. Pentsa daiteke es- kaintza aberatsagoa duela irra- tiak. Normalean irratia entzuleak telebista ikusleen bi herenak dira. Ez da hori gertatzen hemen. Ez ge- nekien zenbatek ikusten zuten euskal telebista. Orain badakigu 40.000 direla erregulariki eta 85.000 aldizka. Kopuru berak dira irratie- tan.

Alta, euskal telebistaren ikusleen %4, ez dira euskaldunak. Zer iritzi duzu?

Ipar Euskal Herri osoan 60.000 eus- kaldun daudela. Euskaldun guz- tiek ez dituzte erregulariki beha- tzen euskal telebista edo irratia. Bertze aldetik, badakigu bederen ikusleen herenak ez direla euskal- dunak. Datua garrantzitsua da. Euskadi Irratiarentzat ere, por- tentajea handia da. Batetik, fro- gatzen da euskal hedabideek en- tzuleria propioa dutela eta erdal- dunak erakartzeko gaitasuna daukatela. Zaila zen hori jakitea inkesta egin aitzin. Gure ustez, ki- rola eta musika eskaintza dago emaitza horren oinarrian.

Euskararen prestigioak azal dezake nola bait euskal komunikabideen eragina?

Erran daiteke baietz, Euskadi Gaz- tearen entzuleetarik anitz erdal- dunak dira; beraz, euskal musikak jendea erakartzeko gaitasuna dau- ka. Baina ez dugu erantzun zienti- fikorik.

EITBk emaitza onak ditu Ipar Euskal Her- rian, lausoguneak izan arren.

Azken bi urteotan EITB hartzeko baldintzak biziki okertu dira. Hala ere, kontrako testuinguruan, ezus- teko ona izan da emaitza. Pentsa daiteke, hemengo ekoizpen gehia- go balira edo bertako telebista bat garatuko balitz, kopurua emenda- tuko litzatekeela. 2008. urtean gai izanzen gara garapen eskema bat proposatzeko. Dena dela, bilkura bat eskatu diogu CSA etxeari, te- lebista digitalaren banaketan eus- kal kate batentzako tokia atxiki- tzea eskatzeko. Ondoko urteetan banatuko dira telebista uhinen baimenak, eta euskarak presente egon behar du horretan.

Irratiei doakienez, ezberdintasun handi- dago eskualdeka.

Baiona-Angelu-Miarritze gunea hartzen badugu, nabarmen ikus- ten da tokiko hedabideen ahulezia.

■ HEDABIDEEI BURUZKO INKESTA IPAR EUSKAL HERRIAN

Telebista

Behatze erregularra %tan, astelehenetik ostiralera

	Ipar Euskal Herria	Hego Lapurdi	Lapurdi Barnealdea	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Baiona, Angelu, Miarritze
ETB1	11	13	12	26	16	5
TF1	54	57	57	67	48	48
France2	49	53	43	60	42	48
France3	61	57	60	71	61	60
France5	17	19	14	15	19	19
Arte	17	23	34	13	16	19
M6	32	40	34	36	28	28
France3 EH	49	51	51	60	54	45
Alegria	2	3	3	4	3	1
Kanaldude	1	0	1	11	1	0

Irratia

Irratien entzute erregularra %tan, astelehenetik ostiralera

	Ipar Euskal Herria	Hego Lapurdi	Lapurdi Barnealdea	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Baiona, Angelu, Miarritze
Euskal Irratiak	11	9	12	39	22	3
Euskadi Irratia	5	10	5	12	3	2
Euskadi Gaztea	2	6	2	2	1	1
France Bleu	23	21	33	36	32	15
Mendillia	3	0	1	6	37	0
France Inter.	16	15	11	19	21	19
NTJ	17	25	22	8	9	15

(TURRIA: IPSOS MEDIA)

Euskararen presentziari lotua dago. Lurralde euskaldunenetan gehiago entzuten da tokiko eskain- tza. Lotuta daude euskara eta toki- ko hedabideekiko fidelotasuna. Euskal Irratiak entzuten dira gehien Nafarroa Beherean, eta aise gaintzen dituzte Frantzia- koak.

Geroari so, hizkuntza politikaren ildotik, zein dira emaitzarik interesgarrienak?

Hizkuntza politikan erraten ge- nuen sostengatu behar zirela eus- kara baliatzen duten hedabideak. Hori frogatu da inkestarekin: atxi- kimendu handia dute, eta sosten- gatu behar dira. Laguntzak era- ginkorrak dira. Gaur egun, euska- raz ari diren hedabideak lagundu behar direla frogatzen du horrek. Arrakasta handiagoa ukan deza- keke lagunduz gero. Beraz, has gaitzen beren probak egin dituzten hedabideak azkartzen eta lagun-

tzen. Bigarrenik, frantses hedabi- deek badakite presentzia handia- goa eman diezaioketela euskarari, ez dutela entzulerik galduko. Az- kenik, hedabide berriak sortzen la- gundu behar dugu, telebistaren ar- loan bereziki. Irrati eskaintza abe- ratsa da, telebistarena ez bezala. Tokiko kate gehiago balira, euska- rak eragina irabaziko luke.

Publizitatea diru iturri garrantzitsua da. Pentsatzen duzue zerbait egitea publi- zitate hartzaileak sustatzeko?

Ondoko aste edo hilabeteetan eus- kal hedabideen aldeko kanpaina abiatuko dugu. Gizarteari ezagu- tarazi behar diogu euskarazko es- kaintza. Bestalde, badakigu prent- sa bizi dela eragile pribatu eta pu- blikoen publizitatetik eta funtsezkoa da hori sustatzea. 2008an garatuko dugu lan sail hori. Prentsa idatzia sustatzeko kanpai- na ere hor sartuko da.